



Peio Etxeleku eta Egoitz Urrutikoetxea, Donapaleun, uztail bukaeran. GULLAUME FAUVEAU

HERRI ASMO BAT BI AHOTSETARA

Bizi ibilbide ezberdinak harturik ere, politikak elkartzera ekarri ditu nerabezaroko ikaskide ohiak. «Hilzorian» zegoen herriak egin dituen aitzinapausoak ikusi dituzte, baina Urrutikoetxea eta Etxeleku arranguraz mintzo dira Ipar Euskal Herriko Hirigune Elkargoa erakundeak dituen inertziez. Etorkizunerako proiektu komun bat adosteko beharra ikusten dute.

Ekhi Erremundegi Beloki

Donapaleu

K

anboko (Lapurdi) Xalbador kolegioan ikaskide izan ziren

Egoitz Urrutikoetxea eta Peio Etxeleku. Orduan izandako bizi-penetatik eraiki dira, bide ezberdinak harturik ere, elkarren errespetuan, herri asmo berdinek motibatzen baititu. Euskal Hirigune Elkargoan elkartu dira berriaz: EH Baiko kide eta Lexantzuko (Zuberoa) hautetsi da Urrutikoetxea; EAJren Ipar Buru Batzarreko lehendakari, Kanboko hautetsi eta Errobiko lurralde



Garaian zer amets zenuten?

URRUTIKOETXEA: Euskal Herri burujabe, libre bat amesten nuen eta amesten dut. Eta uste dut beharrezkoa dela iparrorratz bat ukaitea. Ez da bakarrrik gerorako uzten den helburu bat, baizik eta egunerokoan eraikitzen duzuna. Pandemia gaizto batek harrapatu gaituen egoeran, burujabetzaren kontzeptuak, eta erabakiak herritarrengandik ahal bezain hurbil hartzearen ideiak sekula baino potentzia eta indar handiagoa du. Amets horrek badu bide egiteko. Behar dugu hobeki... ez dut erran nahi saldu, hobeki partekatu.

ETXELEKU: Ni sartu naizelarik EAJn, Lizarra-Garaziko akordio-en garai bete-betean ginen. Ilusio anitz sortu zuen, herriaren batze perspektiba batean. Eta nik bizian ukan dudana ibilbidean sakondu zait Europar idealismoa. Eta beraz, ene ametsa zer litzatekeen laburbiltzeko: Euskal Herri batu eta subiranó bat, estatu federal bat Europa federal batean. Gaur egun, hasteko, luze gabe, ikusten dut Europaren indartzea.

Azken 30-40 urteetan, zer egin da ongi eta zer gaizki?

URRUTIKOETXEA: Non ginen eta non garen. Orain dela 40-50 urte. Erran nezake lurralde arrunt asimilatu batean-ginela, non eta gutxiagotasun konplexuak arrunt barneratuak ziren. Asimilazio prozesua goren gradura heldua zen. Eta jakin dugu desegiten kokatu nahi izan gaituzten iruditeria hertsia horretatik ere. Baztertzailak, itxiak... hori da frantziar nazionalismoak eraiki duena.

Jakin izan dugu irudikatzen gure proiektua, nortasunaren berreskuratzeko proiektua izateaz harago, jendarte hobe baten aldeko proiektua ere badela. Hiltzera kondenatua zen hizkuntza bat, desagertzera kondenatua zen herri bat oraino hor da, eta uste dut hori garaipen alimalekoa dela. Iraganeko akatsetarik anitz ikasi dugu. Akats horietako bat da euskararen berreskurapen fase batean, logika baten biktima ziren herritarrak gure etsaiak zirela kontsideratzea. Gure herri proiektuaz mintzo garenean, argi dugu gure nazio-herri proiektuak borondatezkoa izan behar duela, partekatua izan behar duela, eta Euskal Herrian bizi diren herritar guzuen artean erai-ki beharko dugula; dena delako jatorria izanik ere.

ETXELEKU: Pixka bat aspektu negatiboago bat azpimarratzeko, Euskal Herriak azken 40 urte hauetan aski bide egin ez duen eremua da bere lurralde ezberdinen, eta bereziki lurralde admi-

Peio Etxeleku

(Donazaharre, Nafarroa Behera, 1974)

Parisen ekonomia ikasketak egin ondotik, aitaren segida hartu zuen Peio Etxelekuk Euskal Herria itzuli zenean. Gaur egun, eraikuntza eta elikadura arloko lantegi batean baino gehiagoren buru da, Hego eta Ipar Euskal Herrian. Parisen berpiztu zitzaion kontzientzia politikoa abertzalea, Lizarra-Garazi garaian, eta EAJn sartzea erabaki zuen. «Abertzaletasunera itzuli nintzen, baina izan ditut desbideratzeak». Ipar Buru Batzarreko lehendakari izendatu dute aurten, eta zentro eskuin abertzale hori egituratu nahian ari da orduetik. Kanboko (Lapurdi) hautetsi da, eta Errobi lurralde eremuko erreferente ere bada Euskal Hirigune Elkargoan. Erakundearen funtzionamendu zentralizatua kritikatu izan du behin baino gehiagotan.

Egoitz Urrutikoetxea

(Miarritze, Lapurdi, 1974)

Politikarekin lotura hertsia izan du bizitza guzian Egoitz Urrutikoetxeak. Hala aurkezten du berak ere: «Politika bizi da». Urteetan ibilbide ezezaguna izan ondotik, 2015eko azaroan atxilotu zuten Parisen, ETArekin lotura zuelokotan. Bere auzia instruktoria bidali zuten Frantziako justiziari eta epaiketaren zain segitzen du gaur egun. Historiako ikasketak egin zituen, eta Iratzar fundazioan lan egin du azken urteetan. Aterpetxe baten arduraduna ere bada Ligin (Zuberoa). Gaur egun, EH Baiko kide eta Lexantzuko (Zuberoa) hautetsi da, eta kargu horrekin parte hartzen du Euskal Hirigune Elkargoan. Gaur egun duen funtzionamenduaz kritiko, Ipar Euskal Herriko egitura indartzearen alde mintzo da.

nistratibo ezberdinen elkarretaratzeari. Eta elkarrekin proiektuak eramateko gaitasunean. Hegoaldean, Nafarroa eta erkidegoaren arteko loturak oso gutxi-tuak dira, eta elkar mesfidantza harreman batean gaude, eta bai hegoaldeak eta bai iparraldeak, ez du aski ukan bere proiektu guzietan gaitasun hori bat besteari elkar lotzeko eta bat besteari esperientziarekin proiektu berri bat, proiektu komun batzuk lan-tzeko.

URRUTIKOETXEA: Ez dut aipatu gaia, baina ezin dugu abstrakzioa egin: bortizkeriak izan duen itzal luzea Euskal Herrian. Ez naiz ikuspegi manikeo batera lerratu-ko, baina egia da bortizkeria pizten dela Euskal Herrian kontestu jakin batean, bizi nahi zuen herri baten adierazpen gisa, diktadura batean, eta gurpil zoro bat mar-txan ezarri zen. Horrek anitz baldintzatu du Euskal Herriko politi-kagintza, bai Ipar bai Hego Euskal Herrian. Ariketa zintzo bat falta da ondorio guziak ateratzeko, eta ulertzeko zergatik egin ziren hau-tu batzuk garai batean: helburua zuten estatuak haien eraikuntza prozesuan eta zapalkuntza logi-kan duten bortizkeriaren mono-polioari aurre egitea, baina era-man zituen momentu hartan bortizkeriaren hautua egin zuten kolektibo ezberdinak estatuak joko zelaian aritzera. Estatuak joko zelaian beti galtzaile ateraz-ten zara. Inportantea da horren inguruko gogoeta zintzo bat egi-tea. Estatuak ez dira gai beraien iragan ilunaz beharrezkoa den ariketa horren egiteko; uste dut badugula herri gisa anitz ikasteko eta transmisio lan bat egiteko. Be-launaldi berriek ere jakin dezaten nondik heldu garen. Heldu gara putzu sakon eta ilun batetik. Eta lortu dugu herri gogoeta horretatik ateratzea.

ETXELEKU: Eta nabari da estatu horietan agintean diren batzuek gaur egun ere itzalia espero du-gun su horren berpiztea nahi du-tela; xerkatzen dutela.

URRUTIKOETXEA: Bada krispa-zioaren estrategia ebidente bat. Uste dut gaur egun herria eta abertzaletasuna posizio ideologi-ko sendoagoetan dagoela. Eta az-ken urteetan kokatu nahi izan gaituzten eremu hertsia horretatik ateratzeari aparte, haiek ari dira horretan zarratzen. Nazionalismo hertsia uniformizatzaile eta baz-tertzaila haiena da. Haiek dira aniztasunaren kontrakoak. Aniz-tasun kulturala, aniztasun lin-guistikoa, aski da ikustea migran-teen gaia nola kudeatzen duten. Ez dira gai errateko Frantzia mes-tizajearen emaitza dela. Ez dira gai errateko ere egun Frantziak dagoen bizi maila oinarritzen dela beste herri batzuen zapalkun-tzan. Eta herri horietan diren gaz-teek duten bizi nahi hori beren herrian egiteko manera ez badu-te, frantsesen eta beraz gure bizi mailaren berme den herrietara joateko eskubidea dute. Edo, bes-tela, bizi mailaz aldatzen dugu. Frantziar estatuak eta Frantziako

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

eremuko erreferente, Etxeleku. Hiru hamarkadaren ondotik, go-goetak trukutzen segitzen dute.

Noiz piztu zitzaizuen kontzientzia politikoa?

PEIO ETXELEKU: Egoitz pertzan erori zen txikia zelarik (irriak).

EGOITZ URRUTIKOETXEA: Baz-tertuak edo zokoratuak ginen; nik horrela bizi izan dut nire haurtzaroa. Bizi izan dut zerbait biziki bortitza: arrotz sentitzea gure herrian, gure hizkuntzan mintzatzen ginelako.

ETXELEKU: Les Bascois.

URRUTIKOETXEA: Denborarekin hartzen duzu horren kontzient-zia. Garai baten emaitza gara, eta, beraz, horrek eraman gaitu toki ezberdinetarik bide baten eraikitza, bere gorabeherekin.

ETXELEKU: Abertzale militante sentitzen zen familia batean hazia izan naiz. Garai hartan ikastolako guraso zirenek bazuten motore hori. Eta instituzionalki inplikatu aitzin, beti kontsideratu dut nire lantegiko buru rola eta lantegien ibilbideak bazuela zentzu politiko azkar bat.

URRUTIKOETXEA: Ibilbidea herri mugimenduetatik egin dut, mili-tantzia guzia. Niretzat, zerbait nat-ural gisa irudikatzen dut, pentsa-tzen dudalako ezinbestean behar dela herri mugimenduaren eta eremu instituzionalaren artean interakzio edo osagarritasun bat. Egun baldin bagara gaude le-kuan, urteetan herri mugimen-duetatik haize kontra egin den bi-deagatik da.



Egoitz Urrutikoetxea eta Peio Etxeleku, Donapaleun, uztaile bukaeran. GUILLAUME FAUVEAU

(Aurreko orrialdetik dator)

instituzioek egiten dituzten hautuek krispazioa elikatzen dute; zatiketa soziala elikatzen dute, batzuen eta besteen arteko murtutzea. Uste dut hegemonia kulturalaren lehia irabazten ari garela, ideien lehia. Hein batean, gure arerio politikoeak bere egiten dituztelako urteetan abertzaletasunak jorratu dituen aldarrikapen eta bideak. Politikoki existitzeko horien beharra dute. Baina orain pasatu behar dugu hegemonia politikoen lehia.

Zuek nola kokatzen zarete hor?
Zer rol jokatu nahiko zenukete?

URRUTIKOETXEA: Bere muga eta argi-ilunekin 2017an lortu dugu Ipar Euskal Herriaren nortasuna ezagutua izatea. Urrats sinboliko izugarria da. Baina muga anitz ditu; biziki konplikatua da. Ez gaitu laguntzen behar genituzkeen tresnak eskuratzen, behar genituzkeen erabakiak hartzen. Nihaur bada urte bat hirigune elkargoan naizela, eta inpresioa

da denbora galtzarena. Bilkura anitz, gauza anitz, eta anitzetan erraten duzu: «Euliak ferratzen ari gara». Eta ez ote da hori helburu bat? Gure energiak hor sartzea itzulbiderik gabeko bide batean...

ETXELEKU: Nik ere hori bera bizi dut.

URRUTIKOETXEA: Ezinbestekoa da zango bat atxiki dezagun egitura horretan, eta ezinbestekoa da egitura horren gobernantzan eragin dezagun bestelako norabide batean kokatzeko, baina ezinbestekoa da kanpoan ere zango baten atxikitzea. Neure burua ikusten dut osagarritasun hori eraikitzeko perspektiban.

ETXELEKU: Bisio bat behar dugu, lurralde proiektu bat. Zer estrategia? Zer lurralde nahi dugu? Zer harreman Euskal Herriaren beste parteekin? Eta nola zuzendu lehen lau urte hauetan hirigune elkargoak izan dituen ibilbide txarrak? Proiektua eta inizatibak askoz ere gehiago orekatu behar dira lurraldean, hurbildu herriei

eta biztanleei, eta falta duen arintasuna martxan ezarri.

URRUTIKOETXEA: Egun dugun tresna Notre legearen emaitza da; hertsatzailea da; notabilismoaren eta klientelismoaren sareak elikatzen ditu.

ETXELEKU: Zentzu horretan elikatu baitugu. Badira beste lurralde batzuk beste manera batera egin dutenak. Badira hirigune elkargo askoz ere federalago batzuk.

URRUTIKOETXEA: Nik ikusten dudana da gauzatzeko momentuan erabaki zela zentralizatzea.

ETXELEKU: Beste elkarrizketa batean erran nuen jakobinismoa erreproduzitu genuela Iparralde mailan; zinez, hala da.

URRUTIKOETXEA: Uste dut frantziar estatuak bere egitura administratiboetan diren alde ilunak gurera ekarri dituela. Hori berez aldatzeko manerarik ez da, baina horretaz jabetu behar da.

ETXELEKU: Eta adierazi hautesiei beste eskema bat posible dela. Gaurko egituraren ere bai.

URRUTIKOETXEA: Martxoan izandako eztabaidetan ikusi genuen oraingo tresnak ez duela ahalbidetu aurreko fasetik ateratzea. Hautetsien zerumuga ez doa haien herrietako beharrez harago: nik hau behar dut nire herrian. Eta hor gertatu da gertatu den eztabaida, eta sortu diren tentsioak. «Hau nire lurraldearentzat beharrezkoa da, beraz, zuek behar duzue nire alde bozkatu; bestenaz, zuen perimetroan egin nahi duzuen hori egiteko ez duzue beharrezko sostengua eskuratuko».

ETXELEKU: Klientelismo hutsa.

Noren erantzukizuna da?

URRUTIKOETXEA: Nire ustez, hirigune elkargoa izan behar zen Ipar Euskal Herriarentzat proiektu bat duen tresna. Eta gero, herriak proiektu horren baitan kokatu. Nire ustez, egin duguna da aurreko herri elkargoen metatze edo gehikuntza hutsa. Orduan, ez dago interes orokor partekatutako; dago interes partikularren gehiketa bat. Eta ez diot gertatzen

denaren ardura guzia Etxegarairi leporatzen. Iduri du aldi guziz zerbait proposatzen denean hartzen dela eraso bat izango balitz bezala.

ETXELEKU: Edogaldera egiten delarik, kontestazio bat balitz bezala proiektu orokorrari. Osoki alde-rantziz da. Nahi dugulako gaur dugun egitura, eta bihar landuko ditugunak, efikazak izan daitezten eta lurralde osoaren beharrei behatzeko gaitasunean izan daitezten. Lehen egituratze fase horretan, hamar egitura historikoak pixka bat hustu dira. Hazparneko herri elkargoaren etxea, fisikoki hutsa da. Egitura guziaz berrantolaketeekin zentralizatu da.

URRUTIKOETXEA: Nik ikusten dudana da Ipar Euskal Herriarentzat proiektu batek behar duen zilegitasuna izan dezan sufragio unibertsalaren jauzia egin behar dela. Egun, hautetsiak herrietako ordezkariak dira, eta herriko hautetsi garen ber gara hirigune elkargoko ordezkari. Nik beti dialektikan sinetsi dut: behar dira

ideiak aurrez aurre ipini, konfrontazioa ona da, sana da, sortzailea da; eta gero behar dira sintesiak egin, eraiki. Talde politiko-en sorrera gauza biziki ona litzateke hautetsiak inplikarazteko eta eraginkorrek izateko.

ETXELEKU: Desadostasun txiki bat, barne demokrazia aipatzen baitzenuen. Ikusten ditut abantaila batzuk. Izan dadin Lorraine edo Behorlegi, baduena boz bat Miarritze edo Baiona bezainbat. Uste dut lurralde proiektuari buruz aberasgarri dela. Demokrazia faltaren hitza larriegia litzateke, baina egia da badirela erabaki batzuk segitzen dituztenak prozesu oso eztabaida gabekoak. Eta horrek kentzen diela behar luketen zilegitasuna.

Etxegarairen kontrako fronte bat ikusten dute batzuek. Existitzen da fronte hori?

URRUTIKOETXEA: Nik ez dut gustuko kontraktasunetan kokatzea. Nik uste dut badela agian gogoeta bat aurrera begira kokatzen dena eta eraginkortasunean irabaztea helburu duena.

ETXELEKU: Ikuspuntu eraikitzaile batetik ikusten dut.

URRUTIKOETXEA: Ez da pertsona baten kontrakoa; hori eztabaida faltsutzea da, nire ustez. Nik ikusten dut Zuberoan, urte honetako bilana: lehenak izan ginen defendatzen hirigune elkargoa, eta badira hautetsiak bilkuretara gehiago jiten ez direnak, edo hasten direnak erraten ez duela deusetarako balio.

ETXELEKU: Deskonexio azkar bat bada herri antizengandik elkar-goarekiko.

URRUTIKOETXEA: Gu ez gara hirigune elkargoaren kontra, alderantziz. Gu gara hirigune elkargoa ahal bezain urrun eramatearen aldekoak. Hutsuneak badirenean, erran behar dira.

ETXELEKU: Izanen dira ondorio baikorrak ere. Segur da ez dela gehiago martxoan bezalako erabakirik aurkeztua izanen horrela. Meritu hori izan du.

Galderei erantzutean, behin baino gehiagotan diozue «gu». Nor da «gu» hori?

URRUTIKOETXEA: Ni EH Baiko kide naiz, eta hala parte hartzen dut Zuberoan dinamika batean, biltzen gara hautetsi talde bat, manera kolektiboan lan egiten dugu. Pentsatzen baitugu elkarrekin hobeki pentsatzen dela bakarrik baino. Eta uste dut frogatzen ari garela Zuberoaren kasuan ari garela dugun tresna ahal bezain urrun kokatzen perspektiban. Eta, bestalde, pentsatzen dut



GUILLAUME FAUVEAU

EGOITZ URRUTIKOETXEA: «Nihaur bada urte bat Euskal Hirigune Elkargoan naizela, eta inpresioa da denbora galtzea. Eta anitzetan erraten duzu: 'Euliak ferratzen ari gara'. Eta ez ote da hori helburu bat?»

PEIO ETXELEKU: «Bisio bat behar dugu, lurralde proiektu bat. Zer estrategia? Zer lurralde nahi dugu? Eta nola zuzendu lehen lau urte hauen Euskal Hirigune Elkargoak izan dituen ibilbide txarrak?»

nazioaz, herriaz mintzatzen garenean, gure nazioa eraikitzeke dugula, eta eraiki beharko dugula gure herrian lan eta bizitzeko hautua egin duten guziekin. Gutasuna hortik ikusten dut.

Gaurkoa ez da aspaldi honetan bien artean duzuen elkarriketa bakarra. Zertaz mintzo zarete?

ETXELEKU: Azken hilabeteetan izan ditugun elkarriketak elkar-goaren ibilbideari lotuak dira, orokorki.

Zer egin dezakete Peio Etxeleku eta Egoitz Urrutikoetxeak elkarrekin?

ETXELEKU: Gogoeta eta eztabaida elikatu.

URRUTIKOETXEA: Aliantza estrategia asimetrikoen aldekoa naiz. Uste dut horretarako behar dugula mintzatu, trukatu, eztabaidatu; zenbait aldiz kexatu behar baldin bada, baina, nire ustez, zerbait sana eta eraikitzailea da. Eta hortik bide-egin. Batzuetan, gauza batzuen inguruan ados egonen gara, eta beste batzuetan ez, eta hori naturaltasun osoz bizi beharreko zerbait da horretarako

prest direnen artean. Partekatze-ko perspektiban garen guzien arteko espazioak elikatu behar dira, eta horien sortzeko militante sutsua naiz.

ETXELEKU: Bakoitzak gure historiarekin, gure zilegitasunekin, gure esperientziakin, horrek hurbilarazten gaitu, segur aski, pentsatuz inork ez duela egia osoa, bakoitzak urrats batzuk egiten ahal dituela zentzu onean.

Aipatutako guzia ikusirik, nola ikusten duzue mugimendu abertzalea?

URRUTIKOETXEA: Uste dut, zintzoki, hegemonia kulturalaren lehia eta ideien lehia hori zinez aurreratu dugula, eta orain hegemonia politikoa eraikitzeke perspektiban ezarri behar dugula, eta horrek ekarri behar du, nire ustez, paradigma aldaketa bat. Tresnak ezin dira izan erresistentziarako, gehiengo bat eraikitzeke baizik. Horrek eraman behar gaitu diskurtsoa berrasmatzera eta ausardia gehiago izatera. Berriki errepublika gora eta errepublika behera aritu zaizkigu

uztailaren 14an izan diren ustezko gertakarien itzulian, eta nik argiki erraten dut: ez dute errepublikaren monopolioa. Eta haien errepublikaren erredua zein den agerian ezarri behar dugu. Errepublikazaleak izanen dira, baina hertsatzaileak dira, uniformizatzaileak, baztertzaleak, separatismo soziala elikatzen dute, batzuen eta besteen arteko lehia elikatzen dute. Eta uste dut guk badugula bestelako proiektu bat, bestelako zerumuga bat, eta horren aldeko apologia sutsua egin behar dugu. Eztabaida dialektikoan haien joko zelaira salto egin behar dugu, badugulako manera lehia horretan adierazteko egun gure jendarrea eri baldin bada, eri dela preseski urteetan haien mugimendu politikoei egin dituzten hautuengatik.

ETXELEKU: Erran nezake EH Bai, edo, nahiz eta ez dudan maite 'ezker abertzalea' deitzen den mundua, erradikalagoa dela. Batetik, garapen krisi fase batean dela, eta egia da luzaz oposizio modu batean autoelikatu den mugimendu

bat aginte hein batzuetara helzen denean, ikusten dut oposizio konplexu horretatik ez dela bere logikaren bururaino joaten. Eta ustez gaur dituen posizio batzuetan, elkargoko lehendakaritzaorde postu batzuetan eta abarretan, baztertzen duela bere abertzale ikuspegia. Bestetik, abertzale-euskaltzale mundu hori garatzeko fase batean da, eta espero dut gai izanen garela guri-hurbilarazteko, abertzale hitzak beldurrazten dituen agintari eta gizarte eragile batzuk, uste baitut abertzale munduko bi adar horien osaketak duela ekarriko lurralde honen bisiorik eta perspektibarik emankorra.

URRUTIKOETXEA: Ni kokatzen naizen eremu ideologiko eta politikotik, uste dut hor badugula ariketa bat egiteko: herri mugimenduaren eta instituzioen arteko interakzio-artikulazio berri bat asmatu behar dugu. EH Bai aurkitzen da posizio jakin batean non baduen manera Ipar Euskal Herrian gehiengo bat artikulatzeko, bai Frantziatik eta bai lekutik beretik, proposatzen diren ereduaren aitzinean alternatiba baten eraikitzeke.

Hau guzia euskaratik eta euskaraz eraikiko da? Eraiki daiteke?

ETXELEKU: Iparrorratza izan behar da.

URRUTIKOETXEA: Hizkuntza bakoitza da mun-

dua begiratzeko betaurreko berezi bat. Gure berezitasuna gure betaurrekoetatik heldu da. Kultura ezaugarritzen duena hizkuntza da. Hizkuntzarik ez duen kultura folklorea da. Hori argi eta garbi izan behar dugu. Bai, pentsatzen dut iparrorratza izan behar dela, baina badakit gure proiektua izan beharko dela borondatezkoa ere, eta herri honetan lan eta bizi diren guzien artean partekatua. Gure egitekoa izanen da iparrorratza izatea, gure lana izan beharko da integratiorako tresna bilakatzea, ez asimilaziorako, beste batzuek egin duten bezala. Egun Euskal Herria ezagutzeko eta bizitzeko tresna inportante bat hizkuntza da. Guk izan behar dugu aniztasunaren defendatzaileak. Agian, hor dugu paradigma aldaketa eraiki behar. Euskararen alde izatea ez da besteak baztertzea, aniztasuna eraikitzea da. Euskara baztertzen dutenak mundu monokromoa ikusten duté, guk kolore aniztetakoa. Hor badugu bide bat egiteko.